
APIRILAK 2 HERRIALDEKO MANIFESTAZIOA

AHT NAFARROAN: HASI BAINO LEHEN GELDI DEZAGUN!

2010-ko apirilean Nafar Gobenuak Estatuarekin eta Adif-ekin(Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin) AHT-ren inguruko hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmen honek, **Kastejon eta Eskirotz bitarteko abiadura haundiko trenbide zatiaren exekuzio eta finantzazio baldintzak ezartzea izan zuen helburu**. Lan tekniko eta administratibo batzuk egin dira jada, eta **Nafarroako Gobernuak obra hasiera aurtengo aurreikusten duela adierazi du**.

AHT-ren aurkako talde ezberdinak koordinatzen dituen AHT Gelditu! Elkarlanak, Zaragoza eta Euskal “Y” izeneko lotuko lituzken abiadura haundiko linea eraikitzea inposizioa dela deritzogu eta ingumenaren aldetik nahiz sozialki eta ekonomikoki izugarritzko kalteak eragingo lituzkeen azpiegitura dela uste dugu. Hauexek dira azpiegitura honen aurka egoteko arrazoietako batzuk:

1.- AHT-a eraikitzeak gastu ekonomiko izugarria suposatuko luke. 3000 milio eurotik gora kostako lukete AHT-ren eraikuntza lanek, Nafar Gobernuak urte osoko aurrekontuetarako behar duen kopuru bera. Azken hamarkadetako langabezi tasa altuenak ditugunean eta arlo sozialean aurrekontuen murrizketa larriak pairatzen ditugunean AHT-ak eraikitzeak gastatu beharreko diru kopurua, diru xahuketa hutsa dela deritzogu. Are eta gehiago, eraikuntza lanez haratago azpiegitura mota hauek lanposturik ez dutela sortzen badakigunean, oso baldintza prekarioetan gainera. Honetaz gain, jada eraiki diren abiadura haundiko lineak defizitarioak dira, hau da, etengabeko finantzazio publikoaren beharra dute funtzionatu ahal izateko.

2.-Ingurumenari kalte izugarriak eragingo lizkioke, milaka lur hektareeen okupazioa, trintxera, terrapleen, tunel eta zabortegiak, lurraldean barrera efektua deritzona sortzea, harrobi zaharren esplotazio eta berriak irekitzea, kutsadura elektromagnetikoa...

3.-Soilik hiriburuak batzen dituen eta billetearen prezioa oso garestia denez, herritarren oso kopuru txikiak erabili ahalko luke, Zaragoza, Madril edota Bartzelonara bidai egitea ohiko duen herritar esparru txiki batek, beraien bidaietan minutu eskas batzuk lehenago iristeko halako azpiegitura erraldoi bat eraikitzea onartezina da. Honetaz gainera, errepideetan ibiltzen diren kamio eta kotxe kopuruak ez ditu murriztuko, ez baitu merkantzia pisurik eramateko ahalmenik eta egunero erabiltzen dugun kotxearekin konpetitza ez baitu.

4.-Metropoliaren hazkundera bultzatzen duen azpiegitura da AHT-a, eskualde eta herrien despoblazio prozesua areagotuz eta hauen beharrei bizkarra emanez.

5.-AHT-a inongo logikarik ez duen garraio azpiegitura sistemaren beste pieza bat izango litzateke(autobia, autopista, aeroportu, superportu...) lurra eta lurraldeari beste

eraso bat (aldaketa klimatikoa, baliabide naturalen xahuketa, bertako ekonomiak suntsitzen dituen garraio masibo eta distantzia luzeko eredua bultzatzen duena, garraiatze gero eta azkarragoak bultzatzen dituen mugikortasunaren negozioaren mesedetan (eraikuntza entpresak, petrolerak, automobilaren industria,...)).

AHT-ren egitasmo erraldoi hau inolako eztabaida sozialik gabe ari dute aurrera eramaten. Nafarroako Gobernuak eztabaida ukatzen ari du, herritarrei informazioa izkutatuz eta proiektu hau egitearen beharra zalantzan jartzen duenari oztopoak jarriaz.

Honengatik guztiagatik, **AHT Gelditu! Elkarlanak AHT-ren egitasmoa salatu eta gelditzea eskatzeko manifestazioa antolatu du datorren APIRILAK 2-an Iruñean, honako lelopean: AHT NAFARROAN: HASI BAINO LEHEN GELDI DEZAGUN!**

ESKERRIKASKO ALDEZ AURRETIK!



AHT GELDITU! ELKARLANA
<http://noaltavahtgelditu.blogspot.com/>